

ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan
[6. zk.] 2023ko abendua

ADIMEN ARTIFIZIALA, NATURALTASUNEZ

JABI ARAKAMA


Euskarabideko
zuzendari
kudeatzaile
berriari
elkarrizketa

GAITU.EUS

Euskarazko ahots
sintesirako banku
publikoa sortuz

BULEGOTIKA


Bulegoetako aplikazio
informatikoetan erabiltzen
den hiztegi terminologikoa



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu



euskarabidea



Iruñeko Caparrosoko Errotan instalatutako La Electricista sozietatearen zentral hidroelektrikoaren kontrol-koadroaren edo aginte-makina zentralaren aurrealdeko bista orokorra (1894. urtea).

Argazkilaria: Julio Altadill Torronteras.

Vista general frontolateral de la máquina central de mando o cuadro de control de la central hidroeléctrica de la sociedad La Electricista instalada en el Molino de Caparroso en Pamplona (año 1894).

Fotógrafo: Julio Altadill Torronteras.

ENAP

Euskara Nafarroako
Administrazio Publikoetan
[6. zk.] 2023ko abendua

Koordinatzailea:

Euskara Administrazio
Publikoetan
Garatzeko Zerbitzua
(Euskarabidea)

Kolaboratzaileak:

Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua,
Osasunbidea,
Euskara Sustatzeko Atala,
Nafarroako udal euskara
teknikarien sarea,
Nafarroako Parlamentuko prentsa
zerbitzua eta
Artxiboen eta Dokumentu
Ondarearen Zerbitzua

Diseinua: cobo-munarriz.com

Azaleko argazkia: Adimen
artifizialarekin sortua

Irudiak: Oscar Munarriz, Freepik
eta Iñaki Lopez de Luzuriaga

Argazkiak: Euskarabidea

ENAP aldizkarian argitaratutako
artikuluak berridatz daitezke bai
osorik, bai zatika, baina artikuluak
nondik atera diren aipatu
behar da beti.

ENAP aldizkariak ez ditu
derrigor bere egiten artikulu eta
kolaborazioetan agertzen diren
iritziak.

ISSN: 2697-0988

Egilea: Euskarabidea-Euskararen

Nafar Institutua
Paulino Caballero 13

31002 Iruña
Tel. 848 42 60 54

www.euskarabidea.es

AURKIBIDEA

4 **Elkarrizketa:** Jabi Arakama.

7 **Gobernutik:** Osasun zerbitzuak
komunitate eleaniztunetan.

8-9 **Erreportajea:** Adimen artifiziala.

10 **Parlamentutik:** Nafarroako
Parlamentuaren bilakaera.

11 **Udaletatik:** Euskara merkataritzara.

12-13 **Euskarabidetik:** Gaitu.eus

14 **Ohar historikoa:** Donapaleu.

15 **Hiztegi terminologikoa:** Bulegotika.

* Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena
euskarabidea@navarra.es helbidera.

Jabi Arakama Urtiaga

**Euskarabidea-
Euskararen Nafar
Institutuko zuzendari
kudeatzailea**



Lurra hartzen zaude, Euskarabidean, nola daramazu egokitzapena?

Oso ongi. Egia da intentsitate handiko asteak izaten ari direla, baina aldi berean nabaritzen da martxan dagoen tren batean sartu naizela. Gainera, esperientzia handiko taldea daukat, oso konprometitua, gauzak dezente erraztu dizkidana. Beraz, eta batzuetan gogorra egin daitekeen arren, disfrutatzen ari naiz.

Aurkezpen-bilera asko izango dituzu agendan, ezta?

Bai. Normala da hasierako momentuetan eragileek haien jardura erakutsi eta aurkeztu nahi izatea, eta horren ondorioz une

batzuetan lana pilatu zaigu. Ez zait gustatzen jendea hainbat astez zain edukitzea, baina batzuetan ez dago besterik, egunak soilik 24 ordu dituelako... Dena den, gogo handiz hartu ditut aurkezpen-bilerak, besteak beste euskararen ekosistema hobeki ezagutzeko aukera paregabea direlako: nork egiten duen zer, non, nola, zein proiektu dauden... jakitea, interesgarria izateaz gain, erabat beharrezkoa da lan honetan.

Arlo anitzetan aritu zara lanean, irakasle lehenik?

Bai, hala da; gauza ezberdinak egiteko aukera eduki dut, oraingo ikuspuntutik begiratuta

oso positibotzat jotzen dudana. Enpresen Administrazioa ikasi nuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta horretan (logistika enpresa batean) jardun nintzen sei urtez. Ondoren, DBHko Musika irakasle aritu nintzen bost urtez, 2015era arte.

Ondoren politika mundura salto egin zenuen, nolatan?

2015eko abuztuan, Uxue Barkosen Gobernuak osatu zenean, Geroa Baik Parlamentuan bi laguntzaile berri sartzeko prozesua martxan jarri zuen. Nik urte batzuk neramatzan koalizioaren lan talde ezberdinetan parte hartzen (Hezkuntza, Berdintasuna...) eta zalantza gutxi eduki nuen.

Lau urte pasa ondoren, 2019an, Parlamentuko zerrendan sartzeko proposatu zidaten... eta Euskarabidean sartu arte hortxe egon naiz.

Zer moduzko esperientzia izan da parlamentari aritzea? Gauzak ezberdin ikusten dira Gobernutik?

Oso esperientzia polita izan da Parlamentukoa. Nafarroako errealitate soziala ezagutzeko aukera paregabea da, lurralde osoko dozenaka elkarte, alkate, zinegotzi, herritar anonimorekin... biltzen ahal zarelako. Denek nahi dizute kontatu, ahalik eta hobekien, haien errealitatea, eta asko ikas dezakezu.

Gobernuak daukan kudeaketa arloa ez zaizu tokatzen Parlamentuan, hori egia da, baina nire koalizioak Gobernuko ardurak dituen 2015etik, eta Parlamentuan horri eustea maiz tokatu zaigunez, nahiko gertutik ezagutu dudala esan dezaket.

Zer eman dizu politikak?

Asko... Hasteko, lehen komentatzen nizun Nafarroa hobeki ezagutzeko aukera. Horretaz gain, oso jende jakintsua eta atsegina ezagutu dut; alderdi guztietan daude halako pertsonak. Publikoan hitz egiteko trebezia hobetzeko aukera ere eman dit politikak; egia da irakaslea naizela, eta bidetxo bat ibilita neukala zentzu horretan, baina mikrofono

baten aurrean edo telebistan aritzea ezberdina da...

Dena den, batez ere gauza bat nabarmenduko nuke: gizartea eraldatzeko aukera dauka politikan aritzen denak. Maila batean edo bestean, ahalmena eta baliabideak ditugu politikariok horretarako, probestu behar ditugunak jendarte justuago eta orekatuago bat lortzen saiatzeko; ardura handia izateaz gain, pribilegio bat da hau.

Eta zer eman dizute musikak eta irakaskuntzak?

Ni musikaria naiz (saxofoi irakaslea), musikarien familia batekoa, eta hau barru-barruan daukadan zerbait da. Hainbeste maite dudana musika irakatsi ahal izatea ederra da. Gainera, Musika ikasgaia tresna zoragarria da beste balore batzuk transmititu ahal izateko (berdintasuna, kulturartekotasuna, emozioen kudeaketa...) ongi pasatzen duzun bitartean. Zer gehiago eskatu ahal zaio lanbide bati?

Mikel Arregiren lekukoa hartu duzu Euskarabidean, aldaketa nabaria egin du Erakunde Autonomoak aurreko bi legegaldietan, jarraipena egin al diozu?

Bai, jarraipena egin diot, alde batetik hizkuntza politika beti interes handiz jarraitu dudalako eta, bestetik, arlo honen eleduna izan nintzelako Parlamentuko nire taldean, 2019tik 2023ra.

Gaur egungo egoerak, zorionez, ez dauka zerikusirik 2015ean zegoenarekin. Hasteko, oraingoan Euskarabideko zerbitzu guztiak (itzulpena, euskaltegia, aholkularitza, sustapena...) elkarturik daudelako, eraikin duin batean; hau ez da gutxi, proiektua eta koordinazioari begira garrantzia handia dauka.

Mikel iritsi baino lehen, euskararen sustapen politikarik ez zen apenas egiten, eta orain askoz indar handiagoa dauka. Duela 8 urte, adibidez, euskarazko komunikabideentzat, euskaltegientzat, euskara ikasleentzat, udalentsat, gizarte zibileko elkarteentzat... ez zegoen inolako dirulaguntzarik.

Nolako ekimenak bultzatu ahal ziren horrela? Bestalde, langile gutxiago zegoen Euskarabidean, orain baino, politika publikoak bultzatzeko.

Argi dago oraindik gauza asko hobetu behar direla, baina bide onean goaz, zalantzarik gabe.

Zuzendari kudeatzaile berria zara, zein dira esku artean dituzun erronka nagusiak?

Epe motzeko erronken artean, erakundeko Estatutu berrien onarpena, egituraren aldaketa garrantzitsu batzuk dakarzkiena, 2023ko LEPak plaza nahikoa jasotzea Euskarabidearentzat (oso interinitate tasa handia daukagulako) eta aurrekontuen prestaketa aipatuko nituzke.

Legealdian zehar, Gobernuak onartu behar dituen hainbat aldaketa bultzatzen lagunduko dugu: Administrazioan sartzeko merituen dekretua edo departamentuetako hizkuntza planak, esaterako.

Honetaz gain, Euskarabideko funtzioak ahalik eta hobekien egitea funtsezkoa da, anbizio handiko politikak ezarriz, euskararen normalizazioan aurrera eginez eta, oro har, euskararen ezagutza eta erabilera handituz esparru guztietan. Hau dena, ardatz estrategikoak ahaztu gabe: gazteak, digitalizazioa eta arlo sozioekonomikoa. Horretarako, adibidez, helduen euskalduntze prozesua doakoa izatea garrantzitsua iruditzen zaigu, eta bide horretan sakondu nahi dugu.

Zer alde ikusi dituzu beste gobernu batzuen hizkuntza-politikei dagokienez?

2015eko gobernu aldaketa iritsi zen arte, ez zen euskararen aldeko politikarik nabarmentzen, kontrakoak baizik. Euskararen aurrerapenak gelditzea izan da, gehiegitan, hainbat politikariren helburua.

2015ean aldaketa handia egon zen instituzio publiko askotan –Gobernua barne- eta anbizio handiko proiektuak martxan jartzen hasi ziren. Honek denbora behar du, noski, lau urteko epea oso motza izan daitekeelako egiturazko aldaketak bultzatu nahi badituzu, baina oso

politika eta proiektu interesgarriak abiatu ziren.

Azken lau urteetan, aipatutako bultzada moteldu dela esango nuke. Ez hainbeste Euskarabideko aurrekontu edo proiektuetan, hazten jarraitu dugulako, baina bai beste arlo batzuetan; normatiboan, gehien bat. Dinamika hau aldatu behar dugu, euskararen normalizazioaren aldeko apustu sendoa eginez, Nafarroa osoan.

Euskara Nafarroan, iritzi anitzak ditugu lurralde luze eta zabalean, hausnarketarik honen gainean?

Inkesta ezberdinetan, euskararen sustapenaren inguruan hiru joera agertzen dira: aldekoak, kontrakoak eta indiferenteak. Multzo bakoitzean populazioaren heren bat koka daiteke, gutxi gorabehera. Nik uste dut euskara erakargarria egin behar dugula guztientzat, modu positiboan aurkeztuta, baina batez ere hirugarren multzoan daudenentzat. Eta hau nekez lortuko dugu euskara gatazkan, lokatzetan, eztabaida alderdikoiaren erdian, dagoen bitartean.

Akordio zabala dago Nafarroan, euskara "altxor gisa" definitzeko orduan. Ongi da, baina akordio zabal gehiago behar ditugu, ezagutza eta erabilera hedatzen jarraitzeko. Sustatze eta normalizazio politika anbiziotsuagoak egitera pasatu behar dugu, populazioaren gehienaren onespenearekin. Horretarako, euskara kohesio elementua dela transmititzen jakin behar dugu, nafarron bizikidetzan eragin positiboa eduki dezakeena eta pertsona bakoitzari pila bat ematen ahal diona lan munduan, kultur arloan, aisialdian, sozializazio prozesuan... Lan integrala da hau, epe luzekoa, baina oinarri sendoak ditugu, eta baita energia eta ilusio handia ere. ■

Entrevista al nuevo Director gerente de Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, Jabi Arakama, donde expone sus líneas de trabajo.

OSASUN ZERBITZUAK komunitate eleaniztunetan

Nafarroako Gobernuak, Osasunbidea eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren ordezkartzen bidez, **"Managing languages in the field of health & social care in multilingual communities"** izeneko campusean parte hartu du. Campus hori irailaren 28an eta 29an antolatu zuen NPLD sareak Helsinkin.

Hitzaldiak hizkuntza gutxituetako hiztunek beren hizkuntzan osasun eta gizarte laguntzako zerbitzuetara sarbidea izan dezaten bermatzeko egin diren administrazioetako programa eta planei buruzkoak izan dira. Horretarako, kontuan hartu da paziente edo erabiltzailearen hizkuntzaren erabilerak eragina izan dezakeela osasun eta gizarte zerbitzuen kalitatean eta segurtasunean.

Sarrerako hitzaldia Galesko University for Coleg Cymraeg Cenedlaethol-eko Awen Iorweth doktoreak egin du. Ondoren, Finlandiako suediar-hiztunen komunitateko, Kanadako komunitate frankofonoko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkarien hitzaldietan, administrazioetako gizarte eta



osasun zerbitzuetako hizkuntza ofizialen kudeaketan izandako esperientziak partekatu dituzte.

Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sarearen (NPLD) helburua da European hizkuntza-aniztasuna sustatzea, maila guztietan informazioa eta esperientziak partekatuz, aniztasun hori errazago ulertzeko eta nazioartean hobeto ezagutzeko. ■

El Gobierno de Navarra ha participado en un campus internacional sobre la **gestión de las lenguas en el ámbito sanitario** en comunidades multilingües organizado por la red NPLD.



Adimen artifiziala, naturaltasunez

Adimen artifiziala, kontzienteki edo oharkabean, gure egunerokoa dago, eta teknologia berritzaileekin sarritan gertatzen den bezala, kosta egin dakiguke ulertzea zer den zehazki. Erreportaje honetan adimen artifizialera hurbiltzen saiatuko gara.

ZER DA?

Adimen Artifiziala giza edo animalien adimena imitatzen duen teknologia da, makinetan aplikatzen dena. Horrek esan nahi du teknologia horren bidez makinek ikasteko eta arazoitzeko gaitasuna lortu dezaketela.

Hori lortzeko, alde aurretik norbaitek beharrezko jarraibideak programatu behar ditu eta, hala badagokio, ikasi beharreko baliabideen banku bat makinari eskaini.

HISTORIA LABURRA

Giza portaerak dituzten eta bizia hartzen duten gorputz bizigabeen ideia historian zehar errepikatu da (Galatea, Talos, Golem, automata, robota...). XIX. mendearen amaierako zientzialariek (Ada Lovelace edo George Boole, esate baterako) kalkulu matematikoak automatikoki egiteko makinak sortu zituzten, Adimen Artifizialerako oinarri teorikoak ezarriz.

XX. mendearen erdialdean Alan Turing zientzialariak, informatika eta adimen artifizialaren aitzindari nagusienetakoa, Turingen testa izeneko garatu zuen, makina bat adimentsua den edo ez jakiteko. Adimen Artifizialaren

lehen erabilera informatiko nagusia xake-joko automatikoa garatzea izan zen.

Adimen Artifiziala ikerketa arlo gisa 1956an sortu zen Dormouth Collegen. Arloak hasieran sortu zuen interesak behar egin zuen, gizakien adimena imitatzeak zekarren konplexutasuna agerian uztearekin batera, baina XX. mendearen amaierako aurrerapenek interes hori berpiztu egin zuten.

XXI. mendean, jauzi handia egin da adimen artifizialaren arloan. Eskuragarri dauden datuen kopuruak (Big Data) eta prozesadore informatikoen abiadurak nabarmenki gora egin dutenez, Machine Learning izeneko sortu da,

edo ikaskuntza automatikoa, hau da, makinak ikasteko gai izatea.

Machine Learning horren barne Deep Learning edo ikaskuntza sakonaren kontzeptua dago, hau da, makinek egiten duten ikaskuntza hori geruzatan banatzea. Modu horretan, makina gai da geruza ezberdinak konbinatuz informazioa iragazteko, eta emaitza zehatzagoak lortzeko.

Egun, aurrerapauso esanguratsua eman da Adimen Artifizial sortzailea izenekoarekin (generative AI), izan ere makinak gai baitira, jarraibide errazak emanez, testuak, irudiak, soinuak eta baita bideoak ere sortzeko.

En este reportaje se explica el origen, significado, usos y retos de la **Inteligencia Artificial**

ZERTARAKO ERABILI DAITEKE?

- Ahots sintetikoaren bidez testuak irakurri eta entzuteko.
- Testuak, irudiak, bideoak eta musika sortzeko (zenbaki honen azaleko irudia Adimen Artifizialak sortu du).
- Itzulpenak egiteko.
- Tamaina handiko datu-baseen irakurketa errazteko.
- Kalkulu konplexuak bizkortzeko.
- Estatistika eta probabilitate azterketak hobetzeko.
- Ordenagailuz egindako prozedurak arintzeko.
- Objektuak identifikatzeko makinaren ahalmena hobetzeko.
- Erabakiak modu autonomoan hartzeko.
- Erabiltzaileei esperientzia pertsonalizatuak eskaintzeko.
- ...

ADIMEN ARTIFIZIALAREN ERRONKAK

- Jabetza intelektuala eta datu pertsonalak babestea.
- Informazio-iturrien fidagarritasuna bermatzea.
- Lan-eremuan izan dezakeen eragina orekatzea.
- Gizartearen aurreiritziak edo akatsak makinetara ez eramatea.
- Segurtasun informatikoa hobetzea.
- Erabilera desegokiaren erantzukizunak argitzea.
- Pertsonen prestakuntza beharrak asetzea.
- Araudia eguneratzea.
- ...

NAFARROAKO PARLAMENTUAREN BILAKAERA



Nafarroako Parlamentuaren eratze bilkurak: 1979 eta 2023.



Nafarroako Parlamentuaren edo Gorteen historia aspaldikoa da, mendeetan atzera egin behar dugu sorreraz hitz egiteko. Gorteak ez ziren une jakin batean eratu, Nafarroa bezalako erresuma txiki bateko botere-erakundeen artetik sortu zen eta pixkanaka-pixkanaka garrantzi gero eta handiago hartzen joan zen.

Nafarroako erresuma IX. mendean sortu zen, eta garai honetako erakundeak ziren erregea, botere gorena zeukan buruzagi militarra, berarekin zeuden eta aholkuak ematen zizkien Gorteak eta, azkenik, auzitegiak. Gorteetan ordezkatuta zeuden nobleak, eliza eta hiribilduetako biztanle batzuk.

XVI. mendetik aurrera (1512. urteaz geroztik), Gaztelako erregea Nafarroakoa ere izatera pasa zen. Mantendu ziren Nafarroako erakundeen artean, azpimarratzekoak dira Gorteak. Gorteek erregearen aurrean nafarren interesak ordezkatzeko zituzten.

XIX. mendean, lehenbiziko karlistadaren (1833-1839) ondoren, Nafarroako Gorteak desagertu egin ziren eta Nafarroak erresuma izateari

utzi zion. Gorteen funtzioak betetzeko, 1898an Nafarroako Foru Kontseilu Administrazioa eratu zen, Nafarroako Foru Diputazioaren kontsulta eta aholku-organoa alegia. Kontseilu honek 1979a arte funtzionatu zuen eta Nafarroako Parlamentuaren aurrekaria izan zen.

1978ko Konstituzioa eta 1982ko Hobekuntza Legearen ondorioz Nafarroako Parlamentua sortu zen, Nafarroako Gorteak ere deiturikoa. Parlamentu horrek lehenengo hauteskunde aske eta unibertsalak deitu zituen 1982an. Parlamentu demokratiko hori gehienez lau urtean behin berritzen da, eta berritze bakoitzari legegintzaldi ezberdin bat dagokio.

Nafarroako Parlamentua hamaikagarren legegintzaldian (2023-2027) dago orain, eta 2023ko ekainaren 16an egin zuen eratze-bilkura. ■

Se resume la evolución del Parlamento de Navarra, desde sus orígenes en las Cortes del Reino de Navarra

Euskara merkataritzara

Euskara Merkataritzara planak Iruñerriko, Lizarrako eta Gareseko saltokietan eta elkarteetan euskararen erabilera bultzatzea du helburu.

Plan hau 1994an jarri zen martxan Burlatan eta jarraian Iruñerriko beste hainbat Euskara Zerbitzuko ere bat egin zuten harekin. Gaur egun 10 herri parte hartzen dute programan: Antsoain, Aranguren, Atarrabia, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Gares, Lizarra, Uharte eta Zizur Nagusia.

Udalerrri bakoitzak bere kasa landu beharrean, guztiak elkartu eta sinergiak aprobetxatzeko martxan den programa bateratua da. Udalerrri horietako edozein saltokik parte har dezake, borondatez, eta parte hartzea nahi duenari laguntza integrala eskaintzen zaio.

Hasieran esan bezala, programaren helburua merkataritzan eta elkarteetan euskararen erabilera sustatzea da. Merkataritza euskararen normalizaziorako bidean sektore estrategikoa baita. Izan ere, egun, herritarren aisialdia kontsumora bideratua dago.

Une honetan 205 saltoki ari dira euskararen erabilera areagotzeko urratsak ematen: tabernak, landa-etxeak, arropa-dendak, ile-apaindegiak, hotelak, diseinu tailerrak, botikak, ardotegeak...


Merkatarien atxikipena lortzeko, udaletako euskara teknikariak banan-bananbisitatzeko dituzte herriko komertzioak, bakoitzaren egoera linguistiko erreala jaso eta horren arabera, euskararen erabilera sustatzeko urratsak adosteko. Merkatariairetan eta euskara teknikariairetan arteko harremana ez da hor amaitzen. Programara atxiki ostean, teknikariak hainbat bisita egiten dizkie



merkatariei adostutako urratsak nola ari diren betetzen ikusteko eta horiek betetzeko zailtasunik balego, arrazoiak bilatu eta konponbidea jartzeko. Dena ondo doan kasuetan, konpromiso berriak hartzeko gonbita egiten zaie.

Hartutako konpromisoak bete ahal izateko, doako itzulpen zerbitzua, euskara ikasteko edo errotuluetan euskara erabiltzeagatik diru-laguntzak eta abar eskaintzen zaie aipatutako udaletako euskara zerbitzuetatik. ■

Desde los servicios de euskera de diferentes Ayuntamientos navarros se impulsa el plan Euskara Merkataritzara, para fomentar el uso del euskera en el comercio.



GAITU.EUS



Adimen artifizialak
euskaraz egin dezan

BATU DITZAGUN
GURE AHOTSAK

TEKNOLOGIARI
EUSKARAZ
IRAKASTEKO

«Erronka berri bat dugu euskaldunok: makinek gure hizkuntza ulertu eta hitz egin dezaten, lehenago irakatsi egin behar diegu». Hitz horiekin aurkeztu zen Gaitu kanpaina. Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak ("Hiruko Ituna" osatzen duten erakundeak) jarri dute abian ekimen hau, ahozko datu-masa handia behar duten makina eta teknologia berriei euskara irakasteko, hizkuntza gutxituek ere esparru horietan beren tokia bermatuta izan dezaten, egunero erabili ahal izateko.

"Batu ditzagun gure ahotsak" lelopean, euskal hiztunei gaitu.eus atarian sartzeko eskatzen zaie, beren ahotsa grabatuz, euskal hizkuntza eta kultura garatzen laguntzeko. Zenbat eta ahots eta grabazio gehiago, orduan eta zabalagoa izango da teknologia berriei erabili ahal izango duten datu-basea. Egungo teknologiek testu eta ahozko datu-masa handiak eskatzen dituzte, eta beharrezkoa da euskararen presentzia eremu digital horretan ere bermatzea.

Helburua euskarazko ahotsen banku publiko bat sortzea da. Euskararen egungo erronketako bat adimen artifiziala gaitzea da, euskaldunek makinekin beren hizkuntzan elkarreragiteko aukera izan dezaten.

Hitz egin

Grabatu zure ahotsa




Entzun

Lagundu ahotsak balioztatzen



Dagoeneko badaude herritarrekin hizkuntza nagusietan erlazionatzen diren makinak. Giza ahotsa ulertzen duten ezagunenetako batzuk aipatzearen: Alexa, Googlen Assistant, Siri edo Cortana. Eta hori posible da makinei hizkuntza horiek ulertzen irakatsi eta entrenatu egin zaielako.

Gainera, makinekin elkarreragitea gero eta ohikoagoa da; udaletxera edo osasun etxera informazioa edo hitzordua eskatzeko deituta edo aseguru etxean parte bat emateko hots eginda makinekin hitz egin behar izaten dugu. Makina horiek hizkuntza nagusiak ulertzeko trebatu dira, eta entrenamendu horretarako ahots-banku handiak behar izan dira. Horiei esker ikasi dute makinek giza ahotsa ezagutzen. Makinek euskaldunek nola hitz egiten duten ikas dezaten eta euskara ulertzeko gai izan daitezen, ahots asko eta askotarikoak behar dituzte. Horixe da, hain zuzen ere, ahots-banku publiko bat, eta ezinbestekoa da euskarazko aplikazioak garatu nahi dituzten teknologia-enpresek sarbidea izan dezaten, hizkuntza nagusietan gertatzen den moduan. Helburua ahots asko eta oso ezberdinak lortzea da. Izan ere, lortzen diren ahotsak zenbat eta desberdinagoak izan, orduan eta hobeki ulertuko dute euskara makinek.



El proyecto **GAITU**, supone el desafío de recoger y grabar las voces de miles de personas euskaldunes, con el objetivo de que los sistemas de Inteligencia Artificial aprendan a reconocer esta lengua.

Eta erronkari ekiteko, milaka ahots behar dira, milaka grabazio ordu euskaraz. Grabazioak 'Gaitu.eus' webgunean sartuta egin daitezke. Software librearekin egindako webgunea da. Webguneak bi eginkizun proposatzen dizkie bertan sartzen direnei: batetik, idatzita dagoen esaldi bat irakurtzea, ozenki grabatzen den bitartean. Nahi adina esaldi graba daitezke. Proposatzen den beste eginkizuna da beste hiztunek grabatutako esaldiak balioztatzea, ontzat ematea. Hori ere nahi adina aldiz egin daitezke. ■

OHAR HISTORIKOA

DONAPALEU


1523. urtetik aurrera Nafarroako Erresumako hiriburua izan zen



500 urte igaro dira Donapaleu Nafarroako Erresumako hiriburua bihurtu zenetik. Denbora luzez, Nafarroa Behereko herri hori erresumaren hiriburu administratiboa izan zen, eta hainbat pribilegio lortu zituen, hala nola bere moneta propioa jaulkitzea.

Jondoni Paulo elizak Nafarroako Estatu Orokorrak (Nafarroako Gorteen baliokidea) hartu zituen 1523tik aurrera. Elizak harrizko inskripzio bat du beheko testuarekin:

Ancienne église Saint Paul-XII°, siège des États de Navarre aux XVI et XVII siècles, prestation du serment de fidélité à Henri II de Navarre le 23 août 1523.



Eliza honen parean Derdoy-Oyhenart jauretxea dago, Buruen Etxea bezala ezagutzen dena (Maison des Têtes). Bere etxe-urreko medailoiek Henrike II.a Nafarroakoa, Joana II.a Albretakoa eta Henrike III.a (etorkizuneko Henrike IV.a Frantziakoa) erregeak irudikatzen dituzten erliebeak dituzte.

Henrike II.a Nafarroakoa Zangozan jaio zen 1503ko apirilean. 1530etik 1555ean hil zen arte Nafarroako erregea izan zen. Gurasoak Katalina I.a, Nafarroako erregina, eta Joanes Albretakoa zituen.

Joana Albretakoa Saint-Germain-en-Layen jaio zen 1528an eta Nafarroako erregina izan zen 1555etik 1572ra (Joana III.a Nafarroakoa). Gurasoak Margarita Angulemakoa (Heptameronaren egilea) eta Henrike II.a Nafarroakoa zituen. Joana Albretakoa Joanes Leizarragari eskatu zion Itun Berriaren euskarazko itzulpena egin zezala.

Henrike III.a Nafarroako erregea izan zen 1572 eta 1610 artean, eta Frantziako erregea 1589 eta 1610 artean, Henrike IV.a izenarekin. ■

Se cumplen 500 años desde que los Estados Generales de Navarra (equivalentes a las Cortes de Navarra) se instalaran en Donapaleu.

HIZTEGI TERMINOLOGIKOA

BULEGOTIKA	OFIMÁTICA	
Aldaketen kontrola	Control de cambios	Lerroartea
Altuera	Alto	Lerrokatu
Atzeko planoko irudia	Imagen de fondo	Letra etzanez
Azpimarratua	Subrayado	Letra lodiz
Berrikusi	Revisar	Letra-tipoa
Bilaketa	Búsqueda	Maiuskulaz/Letra larriz
Bilatu eta ordeztu	Buscar y reemplazar	Marjina
Datu-basea	Base de datos	Marratua
Desegin	Deshacer	Marratzu
Diseinua	Diseño	Minuskulaz/Letra xehez
Doitu	Ajustar	Nabigazio-barra
Ebaki	Cortar	Oin-oharra
Elkartu	Unir / Juntar	Ordenatu
Erreferentziak	Referencias	Ordeztu
Erregela	Regla	Orientazioa
Errenkada	Fila	Orria
Ertza	Borde	Orrialde-jauzia
Ezabatu	Borrar	Orri-oina
Fitxategia	Archivo	Paragrafo
Funtzioa	Función	Tamaina
Gehitu	Sumar / Añadir	Taula
Gelaxka	Celda	Testuaren noranzkoa
Geruza	Capa	Tresna-barra
Goiburua	Encabezado	Txantiloia
Hautatu	Seleccionar	Txertatu
Hiperesteka	Hiperenlace	Ur-marka
Hitz kopurua	Número de palabras	Zabalera
Ikurra	Símbolo	Zatitu
Ikuspegia	Vista	Zirriborroa
Inprimatzeko aurrebista	Vista previa de impresión	Zenbakitzea
Iragazkia	Filtro	Zentratu
Irudiaren formatua	Formato de imagen	Zutabea
Iruzkina	Comentario	Zuzenketa automatikoa
Itsasi	Pegar	
Itzaldura	Sombreado	
Itzuli	Traducir / Volver	
Justifikatu	Justificar	
Kalkulu-orria	Hoja de cálculo	
Klik bikoitza	Doble clic	
Konbinatu	Combinar	
Kopiatu	Copiar	

www.euskarabidea.es

